MONDRAGON UNIBERTSITATEA

**Kirol Zerbitzua**

Albisteak

# Laster Kirol Zerbitzuko ekintzetan izen emateak on-line egiteko aukera izango duzue.

2009/09/03




MUko Kirol Zerbitzuak, programa informatiko berri honekin, MUko ikasle zein langile denei, antolatzen dituen ekintzetan izen emateko aukera berdinak eskaintzen die. Uneoro zenbat plaza libre geratzen diren ikusten da, eta horrela denek aukera berdinak izango dituzte bere plaza gordetzeko. Hau egin eta gero, bi eguneko epean, programak sortzen duen izen emate orria eta ordainagiria Kirol Zerbitzura eraman beharko da izenematea gauzatzeko.

Programa honekin azken ikasturtetan izan ditugun arazoak ekiditzea espero dugu, Arrasatetik kanpo dauden ikasleei aukera gehiago eskainiz eta antolatutako ekintzetan dauden plaza baino pertsona gehiago ez inskribatzeko.

Ekintzetan izena emateko, aurretik sistema informatikoan izena eman behar da, eta denbora epe laburrean ekintzetan inskribatzeko baimena izango duzue. Hau dela eta, ikasturte hasieran sistema informatikoan sartzea gomendatzen zaituztegu, aurrerago arazoak ez izateko.

Denon onurarako izango delakoan.

Ikasturte berri on